

DATU PERTSONALEN TRATAZEKO BAIMENA

Helburua eta aurreikusitako erabilera, bai datuen berena, bai datuen tratamenduarena, 2023/2024 ikasturterako zure truke-mugikortasunerako eskaerarekin lotutako kudeaketa guztiak egitea da. Jarraian agertzen diren helburuak onartu behar dituzu, dagokion laukitxoak markatuz.

Lehenengo bi helburuak beharrezkoak dira zure mugikortasun-eskaera izapidetu ahal izateko; beraz, lauki horiek markatzen ez badituzu, ezin izango ditugu kudeaketak egin. Hirugarren helburua aukerakoa da, baina markatzen ez baduzu, zuk ere ezin izango dituzu eskuratu esleitu zaizun norakoan aurreko urteetan mugikortasuna egin duten pertsonen datuak.

- 2023/2024 ikasturterako truke-mugikortasunerako eskaeraren kudeaketa**
(Zure datuen tratamendua helburu horrekin onartzen baduzu, markatu lauki hau)
- 2023/2024 mugikortasunarekin lotutako informazio guztia posta elektronikoz bidalketa**
(Zure datuen tratamendua helburu horrekin onartzen baduzu, markatu lauki hau)
- 2023/2024 ikasturtean eta ondorengo ikasturteetan norako berean mugikortasuna egiten duten pertsonen harremanetarako datuak ematea**
(Zure datuen tratamendua helburu horrekin onartzen baduzu, markatu lauki hau)

Bilbon, ____ (e)ko _____ k ____ (e)an

Sinadura:

Sinatuta: _____

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa

Arduraduna: Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetza, Bilboko Ingeniaritza Eskola, UPV/EHU

Helburua: 2023/2024 mugikortasunaren kudeaketa

Legitimazioa: interesdunak emandako beraiazko baimena

Hartzaileak: UPV/EHUKo Euskara, Kultura eta Nazioartekotze Errektoreordetza eta norako unibertsitateak, bai eta norako berean ondorengo ikasturteetan mugikortasuna egiten duten eta harremanetan jarri nahi duten pertsonak ere.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.

Informazio gehigarria

Nor da tratamenduaren arduraduna?

Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetza, Bilboko Ingeniaritza Eskola, UPV/EHU
Ingeniero Torres Quevedo plaza, 1 – 48013 Bilbao
+34 94 601 8228
ingenieria.internacional@ehu.eus

Datuen tratamenduaren helburuak eta datu trataduen kategoriak

Zertarako tratatuko ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datu pertsonalak tratatuko ditugu, 2023/2024 ikasturterako zure truke-mugikortasunerako eskaera-kudeaketarekin lotutako izapide guztiak egiteko, bai eta hurrengo urteetan norako berean mugikortasuna egiten duten pertsonen harremanetarako datuak emateko ere.

Zenbat denbora gordeko ditugu zure datuak?

Zure datuak zure mugikortasuna amaitu arte eta ondorengo urteetan gordeko dira.

Zein da legitimazioa?

Zure datuak tratatzeko legezko oinarria zuk ematen duzun berriazko baimena da.

Zein datu-kategoriak tratatzen ditugu?

Hurrengo datu-kategoriak tratatzen ditugu

- Identifikazio-datuak: izena, abizenak, NANA, posta elektronikoaren helbidea, telefonoa
- Ezaugarri pertsonalaren datuak: jaiotze-data

Eskatutako datu pertsonalak nahitaezkoak dira. Emateari uko eginez gero, ezin izango da mugikortasun-eskaera kudeatu.

Nori emango dizkiogu zure datuak?

Euskara, Kultura eta Nazioartekotze Errektoreordetzari eta zure norako unibertsitateari, bai eta norako berean ondorengo ikasturteetan mugikortasuna egiten duten eta zurekin Informazioa eskatzeko harremanetan jarri nahi duten pertsonen ere.

Zeintzu dira zure eskubideak, zure datuak ematen dizkiguzunean?

- Zuri dagozkizun datu pertsonalak tratatzen ditugun egiaztatze eskubidea
- Zure datu pertsonalak atzitzeko eta datu okerrak zuzentzeko eskatzeko eskubidea..
- Zure datuen tratamendua mugatzeko eskatzea; kasu horretan, Errektoreordetzari eta zure norako unibertsitateari baino ez dizkiogu emango..